

MOZIOA: GIPUZKOAKO ERRESIDENTZIAK BORROKAN

ARRAZOIAK

Gipuzkoako egoitza eta eguneko zentroetako 5.000 langileek lau urtetik gora daramate lan hitzarmenik gabe eta lan baldintzetan hobekuntzarik izan gabe. Ondorioz, greba eta mobilizazioetan murgilduta daude lan-baldintza eta zaintza duinaren alde.

Pasa den urriaren 7tik 18ra Gipuzkoako lurralde osoko herri ezberdinetan (tartean Tolosan ere bai) protesta martxak egin zituzten ehunka langilek "Zaintzaileak zainduz, bizitzak zaindu" lelopean.

Behar beharrezkoa da egoitzetan eta egoitza hauek kudeatzeko ereduan, pertsonak lehenestea eta zaintzaren kalitate duina bermatzea. Pertsonak lehenesten direnean erabiltzaile eta langileak ere zaintzen dira, ezin daiteke gauza bat ulertu bestea gabe.

Horregatik premiazkoa da langileen ordezkariak diren sindikatuak eta sektoreko patronala negoziazioetan murgiltzea, akordiorako borondatearekin garatuko den negoziazio fase berri bat zabalduz. Zentzu horretan Gipuzkoako Foru Aldundiak negoziazioa sustatu eta balizko akordioaren ondorioak ahalbidetu behar lituzke. Izan ere, zerbitzuaren %90a Foru Aldundiak finantzatzen du eta ondorioz aktore oso garrantzitsua izan behar luke gatazka honen konponbidean.

ELA sindikatuak Foru Aldundia aldean arteko akordioa blokeatzen aritu izana salatu du publikoki eta hori larria da. Onartezina da zaintzaren eta langileen lan baldintzen duintasuna ahalbidetuko lituzkeen akordioak egikaritzeari uko egitea, dirua aurrezteko aitzakiarekin. Pertsona helduen zaintza ezin da negozio bat bezala ulertu.

Zaintza lanena sektore feminizatua da, kasu honetan langileen %98a emakumeak dira eta soldata-arrakala ere pairatzen dute. Langileak gehienbat gizonezkoak izaten diren beste sektore azpikontratatuaren aldean, 6.000 euro gordinoko soldata arrakala dutela kalkulatu da. Benetan eskandalagarria.

Zalantzarik gabe, guzti honek ondorio kaltegarriak ditu egoiliarrek jasotzen duten arretan. Gipuzkoako egoitza hauetan, pertsona nagusi bakoitzak egunean soilik ordu eta erdiko arreta jasotzen du, pertsonal falta larria dagoelako. Hau ez da kalitatezko arreta bat eta Foru Aldundiak ezin du arazoa berea ez balitz bezala jokatu.

MOZIOA

1. Tolosako udalak elkartasuna agertzen die lan baldintza eta zaintza duinen alde borrokan ari diren Gipuzkoako egoitzetako eta eguneko zentroetako langile guztiei, eta modu berezian Tolosako zaintza lanak egiten dituzten eta azpikontratatuak Zu eta Biok enpresako langileei.

2. Tolosako udalak Gipuzkoako Foru Aldundia premiatzen du gizarte arazo bat

suposatzen duen lan gatazka hau epe laburrean konpontzeko ardura har dezala eta beharrezko diren baliabideak bideratu ditzala egoiliarrei ahalik eta kalte txikiena sortzeko.

3. Tolosako udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio sustatu dezala aipaturiko zerbitzuen ratioak hobetuko dituen neurriak, egoiliarren profil berrietara egokituz.

Tolosan, 2019ko urriaren 28an